



ZUTIK!

63^{ZK}

1972

- ETA-ren ideologiaren ahinarrizko puntu zenbait
 - Argitu nahian
 - Borroka harmatuaren arrazoiak
 - Euskal langile klasearen burkari laguntzeko ekintza batzuek
 - Zabala sekustratu dugu, zegaitik?
 - Europar ikasten ari diren kurdoen biltzarra
 - Gure zapaltzaile ta bere lagunaren aurkako ekintzak
 - Maitzaren lehena euskadin
 - Burgosko epaituen eta beste zenbait marxista-leninistaren tesia
 - Nazionalismo iraultzailea eta internazionalismoa Maiztaren leheneko elkar agiria
- E.T.A.—I.R.A.-F-L-B.

eusk - cast

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa

Euskal Herriko Komunistak

ZUTIK! 63


1972

*Este trabajo ha sido convertido a libro digital
por militantes de EHK,
para uso interno y forma parte del
material de trabajo para el estudio e
investigación de la historia del
MLNV*

<http://www.ehk.eus>

**EUSKAL ABERTZALE SOZIALISTA GARAN GUZTIOK ELKAR GAITEZEN !!
MUNDU GUZTIKO LANGILE ETA HERRI ZAPALDUOK ELKAR GAITEZEN !!
GORA EUSKADIKO LANGILERIAREN IRAULTZA !!
GORA EUSKADI ASKATUTA !!**

ZUTIK! 63. Puntos mínimos ideológicos de E.T.A.,....., 1972



ZUTIK! 63zk. Puntos mínimos ideológicos de E.T.A.,....., 1972

AURKIBIDEA

ETA-ren ideolojiaren ohinarritzko puntu zenbait
 Burruka harmatuaren arrazoiak
 Europan ikasten ari diren kurdoen biltzarra
 Euskal langile klasearen burrukari laguntzeko ekintza batzuek
 Zabala sekuestratu dugu, zergatik ?
 Gure zapaltzaile ta bere lagunuen aurkako ekintzak
 Maitzaren lehena euskadin
 Nazionalismo iraultzailea eta internazionalismoa
 Burgosko epaituen eta beste zenbait marxista-leninistaren tesia
 Maitzaren leheneko elkar agiria E.T.A. - I.R.A. - F.L.B.

ETA-REN IDEOLOJIAREN OHINARRIZKO PUNDU ZENBAIT

E.T.A., Herria askatzeko organizazioe sozialista iraultzailea da.

SOZIALISTA:

Proletargoaren interes berezien alde burrukan ari delako; klase gabeko euskal gizarte bat eraikitzeke hasmoz, alegia. Gure sozialismoak. Euskadiko Langileriaren beharrak betetzera joan behar du, bai kultura, poiitika, ekonomia ta sozial arazoetan. Gure ustez Euskadiko Langileria, Euskadin lan indarra salduaz nazional eta sozial askatasunaren alde burrukan ari direnek osatzen dute.

Euskal Erresuma Sozialista eraikitzeke, lehenik, Euskal Erresuma Aske baten beharra dugula ikusten dugu. Hau, proletargoak gidatu beharko du Herrikoi Demokraziaren bidez. Honela, ta ez bestela, izango dugu Euskal Sozialismoa eraikitzeke behar dugun ohinarria. Esan bezala, Herrikoi Demokrazia bitarteko bat da, proletargoa arras nagusitu arte, hain zuzen ere. Herrikoi Iraultza deitu daiteken lehen burruka-maila honetan, burgués tiki abertzateekin eikartu gaitezke frente abertzale bat osatuz denen artean. Honela. gu guzian etsai diren Espainia ta Frantziako oligarkiak, Euskadin dituzten indar zapaltzaileak deuseztuko ditugu. Oligarkiak, burgeseri tikia ere, nazional eta sozialki zapaltzen duenez, hauek, iraultzaren lehen maila honi laguntza eman dezaioteke.

Jakina da burgeseri tikia eta proletargoa, ez

direla soziaiki berdin zapalduak. Baina kapitalismoa, nahi ta nahiezko monopolizatzeko bidean dijoanez. burgeseri tikiak. klase bereizi bezala iraun ezina izango du. Proletargoaren burruka onartuaz, honen alde egitea beste biderik ez du izango, beraz. Proletargo eta bere banguardien egitekoa da. hain zuzen ere, burgeseri tikiak Herri Askatasun burrukaren gidaritza ez hartzea. Aldeantiz, iraultza erdi bidean geratuko litzake, proletargoaren iraultza erreformismo burges tiki bilakatuz.

Burgosko iraultzailekideen gutunaren zati bat ematen dugu orain, beren azterketa te erabaki marsistekin ados gara-ta.

ZUTIK-62:

“Sozialismoaren lehen era, herrikoi demokrazia da, hau. monopolista hartu-emanak ankaz gora bota ondoren eraikitzen bait da. Kapitalismotik sozialismorako tarteko bidea da. Proletargoaren interesak ez dira, noski, herrikoi burgesertarenak. Proletargoaren programa, sozialismoa, klase gabeko gizartea eraikitzeke dijoa. Baina sozial ismora iristeko, herrikoi iraultzatik pasa beharra dugu. Gauzak honela, proletargoak, era honetan konkreta dezazke bere helburu iraultzaileak.”

BURGOSKO GUTUNA

“Nazionalismo iraultzalea ta bere ondorioak aztertzean, jakina da gure burruka ez dijoala Euskadiren berjabetasun (independentzia) astratoa lortzera, (organízaziotik kanpora bihalduek eta beren taldeak dioten bezala] gure Herriaren askatasuna baizik. Azken honek. berjabetasun hutsak baino esan nahi zabalagoa du, honek ez bait du klase burruka aitatzten ere, bere iraultzale kutsua galduaz. Herri Askatasun burruka ideiak aldiz. klase burruka harnean du. Arazoa. beraz, ez da “euskaldunak espainol eta frantsesen aurka” (manifestokoak dioten bezala) “neurri ezberdnetan espiotatuak eta ¡culturalki zapalduak diren euskal klaseak oligarkiaren aurka”. baizik. Burruka honela planteatuz, beren lehen helburua, Euskal Erresuma Berjabe bat eraikitzea da. Honekin, oligarkiaren ekonomiko, politiko ta kultural indarrak leher eginarazten dira (ez bakarrik berjabetasuna lortzen, beraz) eta bide honi jarraituaz, langileriak sozialismoa eraikitzen jarraitzen du, bigarren maila batetan.

Esan beharrik ere ez dugu, iraultza bide hau ez dela etena balitz bezala hartu behar, hau idealismo hutsa litzake-ta. Aspertu arte esango dugu iraultza bat eta bera dela, nahiz guk maMetan aztertu beharra izan. Lehen jomuga bezala herrikoi iraultza ikusten dugu, honen bidez. proletargoak euskal gizarte klase gabeko bat eraíki arte.

Helburu hauetara iristeko, bide iraultzaile guztiak onartzen ditugu, guda harmatua bazterreratu gabe. Baina honako hau esan nahi dugu: egungo ETA-ren Frente

Militarraren egitekoa ez dela populuaren guda harmatua, iraultzaren aurrera-bidea gogortzeko era bat baizik. Hasmoz eta egitez, Herri Askatasun klasegabekoaren alde burrukan dihardugulako, bide iraultzalean gagozela uste dugu. Teoría eta praktika ez ditugu bereizi nahi, noski.

HERRIA ASKATZEKO

Ipar eta hego Euskadi batu nahi bait ditugu, klase gabeko Berjabe den Erresuma Sozialista batetan. Euskal Erresuma hau, Espainia ta Frantziako Erresumen menpetik at legoke, Berjabea, alegia. Guzi hau argitzearren Burgosko iraultzalekideekin batera honako hau diogu:

“Euskal Herria ez dijoa Espainiako herriaren aurka, Espainiako oligarkiaren aurka baizik; Euskal Herria, Espainiako Herriarekin lankide sentitzen da oligarki zapaltzailearen aurka daraman burrukan. Gauza bera, Frantziako herriari dagokionez, Euskal Herria honen lankide sentitzen da Frantziako oligarkia zapaltzailearen aurka daraman burrukan. Euskal Herria, munduko herri guztiek daramaten inperial i smoaren aurkako burrukaren alde da eta hortan lan egingo du. Bestalde. ez da Euskadi ala Frantzia ta Espainia aukeratu beharrik; hau ere bugesiaren jokua da. Izan ere arazoaren mu i na hontan datza: oligarkiak gure herrian daraman zapalkuntzaren alde ala aurka izaitea. Honen aurka izaitiak, gure kasuan, lehen esan dugun bezla, Euskal Erresuma Herrikoi eta Berjabea eskatzen du.»

ARGITU NAHIEAN

Gure burrukaren hautsi-ezinezko izaitte Nazional eta Soziala berriro ere aipatu nahi dugu; bat ala besteari inportantzia gutitzeak gure burrukaren helburua aldatzen bait du. Argitzeko, gutitze honek ekarri duen zenbait ondorio ikusiko dugu.

a) **Eskuindarkeria:** Hauek bakezale eta geldizaleak dira, P.N.V. eta Euskal

Gobernua bezala: 36-ko Errepublikari lotuak dira, honek estatuto bat emango dien ustetan. Honetarako, Ruiz Jiménez eta Areilza bezalako demokraziaren profeta faltsetan begiak ezarriak dituzte, hauengatik zerbait lortuko duten esperantzarekin, noski.

b) **Ezkertiar itxurazko eskuindarrak,**

sozialismoaren hitz “miragarriari” lotuak. Hauek, “abertzale” indar guztiak batuko dituan “sozialista” izeneko Euskal Frente Nazionala egin nahi dute.

Abertzale hitzak, nazio askatzea eta langileen benetako interesen zaintzea dakar. (jakina, kontesto zabal eta internazionalista batetan.) Hauek, ordea, bigarren “ZATIA” ahazten dute (hitz polit eta landuak ez dira aski, “sozialismoa” hitza, esate baterako). ETA ez da inoiz horrelako erreakzionario ta kapitalismoaren aldeko talde hortan sartuko.

Guzi horiek, ETA berekin euki nahi dute, bai bait dakite bera dela banguardiako organizazioe iraultzaile bakarra, eta Euskal Langileriaren askatasuna eta autogestioea lortu dezakena. Nahiz berahuek (Branka, Zuzen, t.a.) gaur “frente” horren buru izan, gainentzekoa ere egingo dute, Euskadi “herrikoi klase”... kapitalistaren zeru bihur dadin.

a eta b, kidekoak dira, beren burgeserialdeko eta iraultza-aurkako posizioean. Horregatik, bazter guztietan espagnolistak ikusten dituzte.

Espainiako estatu faxista zapaltzailea ba dugu, hauek ere hala dira, Euskadiko

Langileriaren bide iraultzaileari trabak jartzen bait dizkiote. Berriketa ugari, baina, ezer guti egiten dutela, kapitalista abertzaleen” kontura bizi dira; Euskadiko Langileria zapalduaz, bere buruak garbitu nahiean...

Gizon hauek, poitika mailan aztertzen ari gara. Kulturakoan berriz, batzuek tana egiten dute, Larresorok eta abarrek bezala, baina, hontan ere, bere lana moteidua arkitzen da, beren joera horregatik.

d) Hirugaren punduan, “nazionalista espagnolistak”getditzen dira.

VI. Asanbleakoak dira, ETA-ren izenaren letra guztiak alperrik dituzte-ta.

“Espainiako komunisten Mogimendua” izendatzen direnek nahiz orain arte, **Komunistak, Saioak** t.a. izendatu.

Hauen berezitasunak .

- 1) Langilekeria atzerakoaia.
- 2) Nazioari buruz oker bidea. Euskal Langileriaren erdtbitzea eta deuseztea nahi bait dute.
- 3) Herrikoi burruka hiltzen dute.
- 4) Burokrazia, eta goitik-beherako agintea.
- 5) Oportunismos.
- 6) Burruka harmatua alde batera uztea.

BURRUKA HARMATUAREN ARRAZOIAK

Militar Frentea, gure burrukaren frente bat da. Euskal Iraultzaren bidea gogortzeko izan behar duena. Hau da masen burruka gogortu eta lagundu. Horregatik, frente honen egin beharrak, politikaren beharretan finkatu behar dira. Biharko egunean, iraultza beharretan arkitzen bada. ETA-ren frente militar hau popularen ejerzito bihurtuko da.

Lehen esan bezela, oraingoz, iraultzaren bidea gogortzeko, ekintzak egitekoa du. hala Euskadiko Langileriaren etsaia nor den agertaraziz. Euskal Langileriaren banguardia izan nahi dugunez, euskai langile klasearen interesak defendituko duen programa

zientifikua prestatu behar dugu. Hau da, gizadiaren aldaketa oso bat, politika, ekonomia, sozial eta kultural mailetan. klase gabeko euskai gizarte batetan. Gure ezken helburu bezela, euskai gizona erabat askatzea da: bai nazionalki eta bai sozialki. Gizonak beste gizonik zapaldu ez dezaten. Horretarako, frente militar honen beharra ikusten dugu; mementu honetan. espainiako sistema faxistaren aurka burruka egin behar bait-dugu. Espainiako Estatu faxistaren aurkako burruka, euskai langile klasean finkatuaz egin behar dugu, eta banguardiak, horien aurretik, eta gidatzen ioan behar dute. ohinarritik hasi-ta, hala, burrukari politika

egitura emanaz.

Bide hau autatu dugulako, gure inguruan diren beste organizazionetatik ezberdinak gara. Masen indarrean **bakarrik** beren burruka finkatu duten organizazioneek edo

nahiz paperean hala izan ez, praktikan hortan bakarrik finkatu dutenek, iraultza aurrera ezin eramana; zango dutelakoan gara. Hontan datza gure berezitasuna.

EUSKAL LANGILE KLASEAREN BURRUKARI LAGUNTZEKO EKINTZA BATZUEK

ZABALA ARRESTATZEA

Egunkari eta irratietara ETA-k bidali dun agiria (ez zuten zabaldu).

Euskadin 1972-go Urtarrila.

ETAk, organizazio iraultzailea, euskai populuan sortua, eta euskai langile klasearen serbitzuan dagona, euskai erresuma Sozialista bat eraikitzea du helburutzat.

- a) Euskalduna. — Ipar eta Hego Euskadi batuko dituen eta gaur egun zapaltzen dun espainiako eta frantziako estaduetatik askatua; zango dena.
- b) Sozialista. — Euskadiko Langileriaren interesak defendituko dituen, langileak Euskadiko burua eta gidari bakarrak bai politikan, kulturen eta ekonomian izan arte.

Bide honi jarraituz, Hego Euskadin peninsulako burgeseri oligarkikoak inposatu duen espainiako sistema faxis tari aurka egiteko, ekintza batzuek aurrera eramanez: hala nola, Donostiako Gurrutxaga butika, erretzea; Urnietako baserria eta Ondarruako alkatearen parfumeria; baita ere lehertzapenak eta banku batzuetako diru hartzeak. (Azken hau burgeseri diruzaleei gurea dena kentzea besterik ez da izan, honekin euskai burruka iraultzaileak dituan beharrak betetzeko).

Bide honi jarraituz, Zabala arrestatua izan da, Precicontrol-eko nagusia (Precicontrol fabrika, Eibar eta Ermua artean dago), eta Agrila-ko akzionista bait zen. eta bide gatz Motobic-eko nagusia t.a...

Bizibidea goraka dijoanez, bertako 183 lengileek, jornalaren igotzea eskatu zuten, baita nagusiek ukatu ere. Langiieek, eskubidezko gauza ukatu zitzaizela ikusi-ta, huelgan hasi ziren. Honen ondorio, denak kanpora botatzea izan zen, bide batez asegurantza ere kenduaz. Langileen interesak zaintzeko, horietatik 13-k, zortzi eguneko gose huelga egin zuten, Eibarko San Andrés eleizan.

Nagusiekin elkar-hizketak, huelga, gose-huelga eta denak egitea, ez ziren aski izan, langileen, geroz ta eskabide txikiagoak ziran haiek onartuak izateko, 13 eskirol ez beste guztiak kalean ziren tanjk gabe.

Ostegunean, 20-an, akzionistak biltzen dira, fabrika beste leku batera aldatzeko, Euskaditik urrun seguru asko.

Hau ikusi-ta, eta langileen bakezko burruka-bideak agortuak dirala ikusirik, ekintza harmatua aurrera eramatea erabaki dugu.

Euskal populuari, eta erabakia hartu behar duten Precicontrol-eko akztonistei ohar hau egiten diegu:

Zabala arrestatu dugu eta eskabide hauek betetzea eskatzen dugu:

- 1) Precicontrol-eko langile guztiak lantegian hartuak izan behar dute, inor kanpoan utzi gabe, bakoitzak lehen zuen puesto ta kategorietan, eta ixte honen aurretik zizutzen antiguadadeekin.
- 2) Galdu dituzten eguneko jornalak, ordainduko zaizkie, puntuak, primak, ta abar ere, bai noski.

- 3) Atzez-aurrera hasi eta, langile guztien artean hileko 137.900 pesetetan goititua izan behar du jornalak.
- 4) Langileen artean demokratikoki autatutako komitea. ofizialki onartua izan behar du; eta honek, fabrikaren martxan eskubide osoa izan behar du. Datorren Uztaritaren 24-astelehena goizeko 8-retarako, langile guztiak lanean, eta eskubide guzti hauek praktikan jarriak ez badira, Zabala hila ¡zango da (plazo hau ezergatik ere ez da

aldataua ¡zango); eta bera bakarrik ez. beste akzionistak eta jerenteak, Juan Luis Mugerza, Faustino Mugica. t.a..., ere, Eskabideak fetxa honetarako betetzen badira. Zabala libre utziko dugu, osasuntsu.

EUSKAL ESTADU SOZIALISTA BATEGATIK
GORA EUSKADI ASKATUTA !

E.T.A.

EUSKADI TA ASKATASUNA

ZABALA SEKUESTRATU DUGU, ZERGATIK?

Gure burruka, klase-nazionalekoa da. Honen ondorioa ezin logikoagoa da. Guk Euskadiko Langileriaren aurka dijoazten indar zapaltzaileak deusezteko ahaleginak egitea.

Nagusi zapaltzaile denak berdinak dira guretzat. Nagusi hauek euskai ala erdal-izena izateak ez du ezertan aldarazten langileok jasaten dugun zapalkultza. Bai batak eta besteak zapaltzen gaituzte, beren "euskalduntasunak" zer ikusi handirik izan gabe hortan. Ez gara, egia, hau ez ikusteko haina itsu. Zabala euskalduna da, ornen, baina beste edozein nagusi batek bezala zapaltzen ditu langileak.

Gure indarra saldu beharrean aurkitzen gara. Kapitalisten sakelak betetzeko egokiak garen arte, bozik onartuak gara beren lantegietan. Egokiak ez bagara ordea, ala egokiagoak eskuratzeko modu onik baldin badute. kalera igorriak izateko irrisu gorrian gaude. Hau da kapital lege bakarra, tehenbait lehen eta prezio merkeanean aberastea.

Makina ta lan tresna guztiak ondotox zaintzen dituzte; garbitu, olioia eman, t.a... Makinek aberastasun gehiago eman dezaten egiten dute hori. Gurekin jokabide berdina ezezik maltzurragoa ere izaten dute: lan egin dezagun, beren serbitzurako den lan hori egiteko, gara "zatnduak" ta neurri hortan digute págatzen. Langileari, bere lanaren prezioa págatu beharrean "bizitzeko" **behar** duena, lanean segitzeko **behar** duena ematen

diote. Ta **behar** dugun hori piska bat gehiago ematen badigute ere, ez da guri laguntza ematearren, beraiek saigai dituzten gauzak eros ditzagun baizik, kontsumoko gizartean parte txiki bat har dezagun, alegia : ta gure parte hartze horrek nagusiak aberasten ditu, guri ondar lotsagarri batzuek utziaz. Izardiz eta nekez irabazi dugun dirua, berriz ere haiengana. gure zapaltzaileengana ítzultzen da. Honela gu ahalik eta gehien xurgatuaz, nagusiak bapo bizi dira eta aberastuaz doaz.

Ta gure zapalkuntza, hau baino konplejoagoa da oraindik Gure lanetik hartze n duten di ruaren parte handi bat Estaduarentzat da, honek "kapitalisten aberastasunak gorde ta zaindu ditzan. Hori da Estadu kapitalisten eginbehar bakarra, "kapitalisten ondasunak" zaindu.

Gure lanaren frutua errepresio eta zapalkuntza bihurtzen da. Gure lanarekm bizi dira, langile ta irauttzaleak eraitko dituzten zakurrak, miiitarrak, t.a. Gure lanaren frutua nola ítzultzen da gure Herrira? Lanaren saritzat, makilak, erailketak, kultura eta hizkuntza burges eta arrotz bat inposatuaz, gure Herria okupatuaz, Euskadi oso-osorik zapatduaz, alegia.

Zabala hori bera egiten hari zen. Bere sakelak nahi bezin agudo bete ezin zituenez geroz, PRECICONTROLEko ateak hetsi eta kito, beste nunbait tapurtzeko aukera hoberik ¡zango ote zuen... Zer ajola hari 200 familia zer janik gabe gelditzen badira ere? Hori ez da

beren kalkuloetan sartzen den gauza. Esan bezala, beren kalkulo bakarra dirua da, ahal den aberatsena izatea, ahal den handiena... ta hortarako nahi ta nahiezkoa da langileria ahalik eta gehien zapaltzea, xurgatzea.

Egin dugun ekintza hau, gure zapaltzaileak agirian ezartzeko izan da. Langileok daramagun burrukari laguntza emateko, radikalizatzeko, hitz batez.

PRECICONTROLEko langileek ahaleginak egin baina etsaiak azkarrak dira. Ahaiik eta ondoen bururatu nahi izan dugu bertako langileak hasi ta eraman duten burrukaldia.

Aurrekoari jarraituaz, horregatik, gure burruka klase-nazionalakoa (klaseko-nazionala) da, ez bait dugu aski nolabaiteko "askatasuna" lortzea, askatasun osoa baizik, nazionala eta soziala.

Jakina da euskal gizona oso-osorik askatzeko, proletargoa zapaltzailerik gabe bizi ahal izateko, hau da, klaserik gabe, erresuma libro bat behar dugula, erresuma euskaldun bat, bestela ez bait litzake egiazko askatasunik izango.

Euskal iangileok, burruka honen "alderdi" soziala eta nazionala batera aurrera eramaten jakin behar dugu, bata bestea baino lehenago ezarri gabe, biak osatzen bait dute gure burruka iraultzailea. Bata edo bestea kenduaz irauttza galarazten dugu, zor zaigun **askatasuna** zokoratzen dugu.

Bide hortetatik bakarrik lortuko dugu Euskadi libro eta sozialista bat, klaserik gabekoa, proletargoak nekazari eta arrantzaleen laguntzarekin zuzenduko duena, eta nagusiek aurrerantza, esplotatzeko aukerarik ere izango ez dutena.

Honela, euskai-klase burruka honekin, munduko beste herrietako langileriak daramaten klase-burrukari lotzen gara, proletargoaren internazionalismoa ekintza bidez erakutsiaz.

Jakina da, esan dugun bezala, ekintza honek, Donostiakoak, Ondarrukoak t.a. helburu bakar bat dutela, Euskadiko Langileriak daraman burrukari laguntza eman, burruka hau pizkortuz, kontradizionaleak herriaren aurrean agirian ezarriaz-

GURE ZAPALTZAILE TA BERE LAGUNEN AURKAKO EKINTZAK

Donostiako Gurrutxaga butika

Faxismoa, Espainiako oligarkiaren serbitzuko da: Euskadiko Langileria atienatzeko eta zapaltzeko dago Euskadin ezarria. Baina, bere eginbehar hori, mementuko beharra& ikusirik, era ezberdinetan agertzen da. Ego Euskadin, danok dakigun bezala. Espainiako Estadia da. Bide guztiak erabiltzen ditu, euskal populuaren nahiak asimilatzeke, eta gure Herrian klase burruka apurtzeko. Hortarako, erreformistei eskubidetxo batzuek emanaz; espetxe edo eraiketa bidez, banguardiako iraultzaileak deuseztuaz, t.a... Dena-dela, Estadia legalidadeko aurpegia iraun arazi beharretan aurkitzen da, eta langileen burrukari gogorki agrka egiteko, eskuak lotuak gelditzen zaizkio. Mementu hortan, eta

ezin bestetan, legalidade itxura gorde nahi-ta, ofizialak ez diren taldeak moldatzen ditu.

Hauek poliziaren baimenarekin eta laguntzarekin ibiltzen dira; berak egin nahi dutena baina ezin egin dutena. hauek egiten dute, inungo traba ta proiemarik gabe. Herriaren barnean ikara sortu nahi dute. Nahi tuketen bezain taxista ezin izateak mogimendu bereziak sorrarazten ditu.

Euskadiko Marxista-Aurkako Taldea Kristo erregearen gerrilleroak

Gurrutxaga, Gipuzkoan den taide hortako bat dugu. Euskadiri dion gorrotoagatik Donostian eta Gipuzkoa osoan ezagutua.

Euskal Langileriaren aurka egin duan lana ez da tikia.

— Gobernu Zibileko tortura geitan.

iraultzaileak identifikatzen askotan egona.

— ETA-ko militante eta laguntzaileak harrapatzen anitz saiatzen dena.

— Joan den abenduan ere bai. Burgosko 16-en juizioan eta hauen alde itxi zituzten dendetako kristalak puskatzen ibilitakoa.

— Burgoskoak babesten ibili zen Bandres Donostiako abogadua autoari su ematen ibilia.

Hontan gainera, guzien aurrean zera esan zuen; “Lanari ekin diogu”.

Aurpegi latza behar horretarako.

Esan guzi hauengatik eta Euskadiko Langileriaren izenean, ETA-k bere butika erreaz, merezi zuena egin dio.

Ondarruko alkatearen perfumeria

Gorago esandakoari jarraituaz, ikusten dugu nola polizak, guardiazipilak, txibatoak ta abarrek bakarrik ez direla gure etsaiak. Telefonak, telegrafoak eta korreoak ere, txibatoen tresna izaiten bait dira. Sindikatoak berriz, Espainiako faxismoaren tresna batiotsuak dira; hauetan gosea eta langileen zanpatzea prestatzen da. Maixuak, eleizak, informazio bulegoak... euskal kulturari parra egiteko, eta trabak jartzeko dira maizegi.

Espainiako faxismoak goitik-behera autatutako alkateak, bere serbitzuko diren gizontasunik-gabeko gizonen bila ibiltzen dira, poputuarenak diren aberastasunak

huskeria batengatik saldu ahal izaiteko... Miguel Ángel Arrizabalaga Arkotxa (Xaxi), euskaldungoaren traidore hauetako bat duzute. Euskal kutsu-dun guziari dion gorrotoagatik ere, Hego Euskadi osoan ezagutua.

Carlos Hugo-ren guardiako kapitana izandakoa da.

Hilario Beitia Ondarruko juezarekin, herriko apaizei emandako palizan parte hartu zuena; ta baita beste ekintza askoetan ere.

Hau ikusirik, herriak juzgatu ondoren, zigorra eman zaio perfumeria erreaz.

Urnietako Rekondoren baserri-taberna

Euskadin dagoen zapaltzaile indarren lagun bat dugu Rekondo. Diruarengatik Herria saltzen duten horietako eredu bat da; Horrela, euskai-kutsua duten gauza guztiak apurtzen entseatzen da.

Bere txanda etorri zen, eta populua saltzen duten guztien antzera, bere taberna-dun baserria errea izan zen.

Traidore hauek zigortzeko ordua ba da.

Herriak ez ditu hauek ahazten eta berak bere juizioa egin ondoren, zigortuak izango dira.

Honek ohar bat izan nahi du. Bai, Espainia eta Frantziako estadien laguntzaite izan nahi dutenek, eta bide batez euskalduntzearen aurka dijoaztenek, urrengoan, zigor gogorragoa hartuko dute.

MAITZAREN LEHENA EUSKADIN

Joan dan neguan, langile eta herrikoi burrukak ugariak izan dira (fabriketako konbenioak. unibersidadeetan mogimenduak, t.a.), eta ETA miiitanteak hauetan banguardiako parte hartu dute. burrukan osorik sartuaz, beste batzuekin batean. ETA-k masen ekintzak proposatu zitun Maitzaren lehenean Parisen.

Huelgak eta manifestazioneak izan dira Hego Euskadin. adibidez Bilbaon, Irunan,

Donostian. Lazkaun. Errenderian, Beasainen, t.a.

Masen ekintzeri laguntzeko ETA-k zenbait ekintza militarrik egin zituen eta horien berri ematen da hemen soilki. esanaz zergatik eginak diren eta zein heiburuekin.

1) ETA-k Beasaingo Sindikatu-etxe fazista erre du. Mundu guztiak daki sindikatu hori nola dagoen kapitalismoaren serbitzutan eta nola ziarduen langite klasearen kontra.

Sindikato horri. euskal langileriak ezezko borobil bat eman zien, bera "legalizatu" asmoz fazismoak elektionetarako deia egin zuenean.

- 2) Txoritokietako (Gipuzkoan) telefonotako zentrala suntsitua izan da. Bukatua bezela zegoen eta poliziaren serbitzurako presto. Esan behar da, poliziak hortik jarra) zitzakeala ez bakarrik Euskadi barruko, baizik Euskaditik edonora egiten diren elkar-hizketak ere. Langile klasea eta herria kontrolatu eta zapaltzeko muntatua zen. Hori nahikoa ez dala, telefonotako tarifa igotzeko erabakia hartua dute.
- 3) "Espainiako buelta ziklista" saboteatua izan da.
 - a) "El Correo Español-El Pueblo Vasco" egunerokoak organizatua zelako. Eguneroko hau gure herria zapaltzen eta esplotatzen duen oligarki fazistaren notizi-emailerik garrantzitsuenetariko bat da.
 - b) Gaurko gizartean deporteak duen eginkizun alienatzailea salatzen. "Vuelta a España" eta bere antzeko zenbait txapeiketa nagusiek, herria bere egiazko arazoetaz ahaztu arazteko erabiliak dira.
 - c) Espainiako Buelta, Euskal-Herrian sartzen delako, izanik diren bezela

Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa Euskadi eta ez Espainia; bide honez, Espainiako gobernuak daráman euskal langileria desnazionalizatzeko lan zapaltzaileari lagunduaz.

Bestalde, Ipar Euskadin ere. Donibanen, Biarritzen eta Baionan beste hainbat manifestazio gertatu ziren Maiatzaren Lehena dela ta.

Parisen ere, aurretik esan genuen bezala, euskal langileriaren zerbitzuko, parte hartu genuen. Frantziako Estatuak zapaldutako beste herrietako langileekin batera. Bretoiak, Korzegakoak, Alsaziakoak, ta abarrekin. herri horien askatasun osoa eskatuaz, munduko langile klasearekin bat eginlk.

Nahiz eta gobernuak eta polizi fazistek ETA bukatu zela esan. organizazioa euskal langileriaren banguardia izaten hari da: eta dio, ez duela bakezko unerik emanen eta izanen, oligarki fazistak, masa burrukaren bitartez deuseztuaz gero ; euskal estatu sozialista, independientea eta batua lortu harte.

Une berean. gaineratzen da ETA-k: bat egiten gara munduko langileri-klasearen burrukarekin eta askatasuna osoaren (soziala eta nazionalaren) alde gudukatzen diren herri zapaldu giztiekin

NAZIONALISMO IRAULTZAILEA ETA INTERNAZIONALISMOA

Nazionalismo iraultzailea, V Asanbleak, menperatua den nazio batetako langile klasearen nazionalismoa bezela agertu zuen. Burges nazionalismoa, burges-tikiaren nazionalismoa eta nazionalismo iraultzailea zer diren jakiteko, argltasun batzuek ematera goaz.

BURGES NAZIONALISMOA: Burgesiak, bere ekonomia zaintzeko. muga batzuen beharra izan du, eta hortarako nazio-asko-dun gaurko Estatuak egin ditu. Bere politika, ekonomia eta sozial arrazoiegatik, burgesiak nazio bat, handiena, aukeratzen du eta bide

batez beste guztiak zapaldu, dituzten berezitasunak galdu arazi arte hizkuntza, kultura. historia, ohiturak ta.)

Nazio-asko-dun Estatu onen nazionalismoa, erreakzionartoa eta burgesa da.

BURGES-TIKI NAZIONALISMOA: Nola oligarkiak, burges-tikiak zapaltzen ditun, nazio tiki baten kontradizio nazionala, bere interesetarako erabiltzen du, eta hala, honetarako, autonomía edo askatasuna eskatzen du. Honen eskabidea erreformismo

burges-tiki batetan getditzen da, sozial iraultzaren aurka bait dago.

NAZIONALISMO IRAULTZAILEA: Langile klasearen nazionalismoa da, bere askatasun osoarengatik burrukatzen bait da; sozial eta nazional arazoak betiko konponduaz.

Nazionalismo hau progresista da. oligarkiaren muga ekonomikoen aurka joanaz eta burgesiaren aurka, klaserik gabeko sozialismora dijoalako. Ala ere, Espainiako eta Frantziako ezkertiarrek, nazio kontuan ez dute bide progresistarik hartu.

Beren herrietako klase menperatzaileen ideoloji txobinistak hartuaz, burgesiak sortutako mugak zaintzen ari dira.

“Ezkertiar” hauek ez dute konprenitzen, munduan klaserik ez egoteko, eta nazio zapalduzik ez izateko, Estatu askatu bat ukaitetik pasa beharrean garala, nahiz hau betirako ez izan.

Ohinarri hau kontuan euki behar dute, zeren hortan Ikusten dugu burges teoria, eta autoderminazio sozialistaren arteko ezberdintasuna.

MAITZAREN LEHENKO ELKAR AGIRIA E.T.A.- I.R.A. - F.L.B.

Maitzaren Lehena izanki eta, Britainia, Euskadi eta Irlanda, gure herrien egoera ikusiz, zera diogu:

- 1) Londres, Madrid eta Parisko gobernuak, beste kapitalismo indarren laguntzarekin, Euskal, Bretoi eta Mandar herriak nazional eta sozialki zapaltzen dituztela.
- 2) Beroien politika zapaltzailea zaindu ahal izateko, eta askatasunaren aldeko burrukak apurtzeko, kartzelak, presondegi zelaiak, nun-nahi ezin biziak, espulsiak, torturak eta erailketak erabiltzen dituztela.
- 3) Zapalkuntza honek, burrukaren banguardia diren ETA, FLB eta IRA, Herria askatzeko organizazio sozialistak ta batez ere hauek zigortzen dituela.

Langile, komertzianta tiki eta intelektualek

daramagun burruka zapaltzeko, Europako kapitalismoa, Merkatu Batuan bildu da. Hauen aurka joateko, Herri zapaldu guztiei dei bat egiten diegu, baita ere Europako militante eta organizazio iraultzaile eta demokratik guztiei, guk dugun nazional eta sozialki askatzeko dretxoei. gure masen burrukari eta gara;tu arteko daramagun guda armatuarl. laguntzeko.

Kanpoko Ordezkaritza

F.L.B./A.R.B.

I.R.A.

P. O'Neill Runai

E.T.A.

Kanpoko Ordezkaritza

EUROPAN IKASTEN ARI DIREN KURDOEN BILTZARRA

(Denen arteko agiria.)

Europako kurdotarren biltzarra Bukaresten (Rumanian) izan du, otsaileko 15-tik, 19-ra.

Bertara gomituak izan diren Herria Askatzeko Organ!zazioak, beren artean, elkar-

hizketa ukan ondoren hau agertarazten dute:

1º) Kurdistaneko Partidu Demokratik (P.D.K.) zuzendu-ta. Nazionalki eta sozialki askatzeko eta autodeterminaziorako kurdo herriak daraman burrukari, gure laguntza osoa.

- 2º) Herri bezela dituan legezko eskubideagatik, bere lurrean autodeterminaziorako duan dretxo jarri ahal izateko. eta baita ere Palestinako Estatu Demokratiar bat eraikitzeke, sionista estatuaren eta Jordaniako gobernu atzerakoiaren aurkako palestinar herri handiak daraman guda harmatuari, gure zalantza-gabeko benetako laguntza.
- 3º) Autodeterminaziorako duan dretxo jarri eta Euskal Estatu Askatua. Batua eta Sozialista bat eraikitzeke, Espainiako estatu faxistaren eta Frantziako estatu kolonizatzailearen aurka, euskal populu handiak daraman burrukari, gure laguntza osoa.
- 4º) Gaur egun Vietnam, Laos, Camboya, Ertrea, Golfo Arabigo (Pérsico), Angola, Mozambique, Guinea-Bissao, Irlanda, Quebec, Estatu Batuak (afroamerikako mogimenduak), eta Ego Amerikako herriak daramaten burruka harmatuari eta Nazioa Askatzeko Mogimendu Aurrerakoiak duten autodeterminaziorako dretxoari, gure laguntza.
- 5º) Pentsatzen dugu munduko herriak

daramaten burruka armatuak, etsai bera dutela, hau da. munduko estatu inperialisten frente atzerakoa.

HALA IZANIK:

Askatasuneko Munduko Mogimendu guztiek elkar lagunduaz, inperialismo eta kapitalismoaren aurkako MUNDUKO HERRI ZAPALDUEN FRENTEA egitea proposatzen dugu (informazioa, iraultzako esperientziak pasatzea, militarren alkarrekiko lanak egitea, t.a.), alkartuaz bakarrik garaituko bait dugu.

ASKATASUNA ALA HIL !

HIL ARTE IRAULTZA !

GARAITUKO DUGU !

GORA KURDO, PALESTINA ETA EUSKAL POPULUEN BURRUKA !

Bucarest-en, 1972-go Otsailaren 19-an

FATH, Herria Askatzeko Palestinar Mogimendua (bittzarreko errepresentatzaileak).

ETA Herria Askatzeko Euskal Sozialista Organizazio Iraultzailea (biltzarreko errepresentatzaileak).

KURDISTANEKO PARTIDU DEMOKRATIKOA (P.D.K.) (Iran-ekoa).

BURGOSKO EPAITUEN ETA BESTE ZENBAIT MARXISTA-LENINISTAREN TESIA

Ikusi berri dugunez III'en Internazionalaz gero. orduarteko marxismuak kolonialismo eta inperialismu peko nazional arazoei dagokienean emandako soluziuei buruzko proposamenduak, gaindituak, berrituak eta kontradezituak izan dira zenbait sozialista iraultzaren kasuan. Orain, Euskadiko erakunde iraultzaile den E.T.A. gutxidaino lehen postuetatik pertsonalki zuzendu dutenek Espainiako eta Frantziako Nazionalidadeekiko Estaduetan euskal nazional arazoarentzat praktikatu eta proposatzen duten soluziuarekin beste honelako zerbait gertatzen ari dala konstata dezakegu. Zeren, III'en Internazionala mugaharri, marxismuak Nazionalidadeekiko Estaduetarako proposatutakoa, gainditua eta

zenbait puntutan kontradezitua aurkitzen bait dugu berauen thesian. Besterik gabe, igaro gaitezen guzti honen ausnartze xehe batetara.

I.— KONTZETUALIZAZIUA:

ETA-ren V'en Biltzarrean, gaur oraindik bere osotasunean, bere egunean egin izan zuten bezela. izenpetzen dutenean. E.T.A.'ren historiako teoriku urrats garrantzitsuenak ikusten dituztela. adierazten zaigu". nahiz eta beraiek berritzeak, konkretatzekoak eta osotzekoak izan." (1) Orduan, han markatzen

¹ Ikus, Documento de los presos de Burgos. 5-en orrialdean.

zen ideolojia, estrategia eta taktikaren jokabidea kontradezitzen duan guztia. berauek, onartzen jarraitzen duten E.T.A.-ren bidetik at dago. Eta une honetan aztertzeraz goatzan berauen lanak ere markatutako harén osogarriztat hartuak eta kontsideratuak izan behar dira eta dira, noski.

a) **Marxismu-leninismua:** (2)

Hasteko, konstatatze batekin etorri datoz "E.T.A. Ven Biltzarrean, erakunde sozialistatzat onarturik, sozialismuari dagokionean humanista eta erreformista ezetzik, marxista-leninista izendatu zen. Eta honekin E.T.A.-k ordurarte erabili zuen Nazional Frentearen definiziua baztertuta gelditu zen. Zeren, absurdua kontsideratzen bait da, bestela beharko zuen Nazional Frentea sozialistaren izakera.» (3) Baina, marxismu-leninismuak gaurregun muga anitz dualarik, euskal nazional arazoari dagokionerako, zertan jarraitzen dioten adieraziko zaigu: "errealidadearen analisi marxista-leninista batetan." Eta berau, batik bat une bakoitzean aurkatuak dagozen klase interesen analisisan datzala. gehiagotuko zaigu. Klase bakoitzaren interes materialak bistaratzean. Klase batzuen eta bestatzuen interesen arteko kontradiziuak argitaratzean, noski. Orduan. marxista-leninista analisiaren egitekoa berau da. Honela bada, bere interes objetibuak konprenituz gero, proletargoak bere politika eta programa finkatu behar ditu. Ondorioz, "marxista-leninisten programa politikua ez da ezjakinak harrapatzeko teknika bat, proletargo klasearen interesen agerpen zintzo bat baizik" (4). Guzti honek, marxismuak gaurdaino nazional arazoari buruz emandako soluziua, gure kasuaren aitzinean birkontsideratzea ekarriko du. Eta horretan enseiatuko dira. Zeren, egungo euskal herriko errealidadearen analisi zehatz bat egin gabe hartutako soluziua. marxismu-leninismua, printzipiu dogmatiku eta monolitikuen multzo bezela edo eta jokabide determinatu eta standarizatuen multzo bezela, hots. anti-diatektikuki hartzen dala adieraziko bait luke.

b) **Nazional eta klase burrukaren**

² Ikus, ibídem. Documento... 6-en orr

³ Ikus, ibídem. Documento... 6-en orr.

⁴ Ikus, Zutik, 62.2en orrialdean.

hegiak: (5)

Sarritan "nazional hegia" formula erabiltzen da. Eta beraren bitartez. "Espainiako eta Frantziako Estatu oligarkikoen podereekin bukatzeko, euskal klase popular guztiek alkarrekin komuna egin behar duten burruka adierazten da" (6). Gainera, Euskal Estatu popular, independente eta soberanu bat soluziutzat proposatzen da (7). Halere. klase popularrek oligarkiaren aurka duten burruka komun honek. fangileriaren interesen defenditzaile geranoi ez digu ahaztuarazi behar, iraultza berorren funtsezko den beste hegi bat, hots, "klaseen burrukaren hegia" (8). Eta E.T.A.-k nola bata hala bestea berekin daramazki. Beste pasarte batetan. hegi nazionalari beste deitura bat emango zaio, hots, hegi popularrarena, zeren, "kapital monopolistaren aurkako burruka iraultzailea popular hegiduna baita eta ez soilki proletargotzarena" (9). Hemendik ere, kapitalismo monopolista itzultzeko iraultza, soilki sozialista edo proletargotzarena ezik. popular iraultza. hots, proletargoak beste klase aliatuekin bat eragina izan behar duala (10). Eta klase burrukaren hegia, bestetzutan proletargotzaren hegi deituko da. Honekin proletargotzaren interes espezifikuen erdieste bere egtteko bakarra eta berezia dala adierazi nahirik, noski. Ondorioz, "euskal herriko klase popularren arteko aliantzak duan hegi nazionala. Espainiako eta Frantziako Estaduen (nazional) formen aurka egotea etorri dator" (11).

c) **Euskal-Herria:** (12)

"Euskal-herria ez da batasun absolutu bat. Burgesek eta beren intelektualek ohi dutunez, ez dago horretatik klaseak at uzterik. Euskal-herria oso ondo berezirikako klaseen osotasun bat da, nahiz guztiak nazionalki zapalduak eta kuantitatibuki eta kualitatibuki

⁵ Ikus, ibídem, Documento.... 11-en orr.

⁶ Ikus, ibídem. Documento..., 11-en orr.

⁷ Ikus, ibídem. Documento.... 11-en orr.

⁸ Ikus, ibídem, Documento.... 11-en orr.

⁹ Ikus, bdem. Zutik 62,2-en orr.

¹⁰ Ikus, ibídem, Zutik 62,2-en orr.

¹¹ Ikus, ibídem, Zutik 62,3-en orr

¹² Ikus, ibídem, Documento... 12-en orr

gradu ezberdinetan oligarkiagatik txupatuak egon.” (13) Herri ikuskizun esenzialista. etniko eta geografiko oro ukatu gabe. dialektiko eta klaseburrukarena hautatzen da. Honekin baturik, beti kontuan duten printzipiu bat berritzen da: “abertzaleak bai, baina. klase konkretu bateko izanaz, hots, klase interes ekonomiko batzuk burruka egitekoan jokuan jarriaz.” (14) Zeren, Herria definitzekoan klase dimensioa ahazten badugu, gure burruka Espainiako eta Frantziako nazional **komunidadeei** (nazional formei ezetz) beste gabe oposatzen data ondorio bait liteke. Eta hau esatea. ankerkeria haundi bat da. izan ere, euskal-herria, Espainiako herriaren aurka ezik, Espainiako oligarkiaren aurka bait doa, eta Frantziako herritari dagokionean beste hainbat gertatzen da. Areago, “Euskal-herria, Espainiako eta Frantziako herriak oligarkia zapatzailearen aurka daramaten burrukan, horiekin lankide sentitzen bait da.” (15)

d) Nazionalismua (16)

“Euskal nazionalismua, euskal-herriaren birbatasunerako eta independentzia nazionalerako jokabidean datza.” (17) Eta jarratuaz, “abertzaletasun” kontzetua aitzineko horri oposatuz gero, hots, nazionalismua “eskubiarena” eta abertzaletasuna “ezkerrarena” eginaz gero, euskal nazionalista eskubitarrei mami iraultzaile oro kentzen enseiatzen direnen jokabidea. arras deuseztatuko da. Zeren, proposamendu hori onartzea, euskal burgesiaren nazionalismua, euskal iraul tzai leen etsai. beste berezkuntza gabe. dala baiezteza bait litzake (18). Aitzitik, 1970-ko Abenduan argi eta garbi frogatuta gelditu izan da, euskal burgesiaren nazionalismua proletargoaren objektu batzuekin bat etorririk, oligarkiari aurkatuz gero objektu iraultzaile den egitekoa duala (19). Halere, nazionalismo oro ez dala berdina gehiagotuko da. Honela, batetik burgesiaren nazionalismua, hots, Espainiako Estaduan

podere monopolista ezarri aitzineko nazional burruka gizaldi eta erdiren luzaroan zuzendu duan burgesia popularrarena, eta bestetik, Espainiako Estaduan podere monopolista ezarri gero, proletargoa zuzentzen hasten den nazionalismua dauzkagu. Halere, nazional burruka honetan proletargoak eramandako igokundeak burgesia nazionalistaren parte hartzea ez du ukatzen, bigarren mailara bihurtuarazten baizik (20). Orduan, Euskadin proletargoa sozialismuagatik burruka egiten ari da, nazional askatasunerako iraultzan parte hartzen duanean (21).

e) Internazionalismua: (22)

“Euskal-herria ez doa Espainiako herriaren aurka, Espainiako oligarkiaren aurka baizik; gainera, Euskal-herria Espainiako herriarekin oligarkia zanpatzailearen aurkako bere jokabidean lankide sentitzen da. Gauza bera Frantziako herriari dagokionean, Euskal-herria Frantziako oligarkia zanpatzailearen aurkako bere jokabidean lankide sentitzen da. Euskal-herria inperialismuaren aurka burruka daraman munduko herri guztiekin ere lankide sentitzen bait da.” (23) Izan ere, guztia honoko honetara mugatzen bait da: gure herria oligarkiak daraman txupatzearen atde ala kontra egotera. Honen kontra egoteak, gure kasuan. Euskal Estatu popular, independente eta soberano bat esijitzen du (24).

Are gehiago, Euskal-herriaren eta Espainiako eta Frantziako herriten artean, gure borondate guztien gaitetik, hareman objektu eta historiko batzuk oraino esistentzia dute. Honengatik, erakunde eta partidu popular euskaldun, espainol eta frantsezen arteko har-emanak. gaurregun esistentzia gabeak, ahalik eta gradu haundienean indartu eta bilakatu behar dira, alkarren sostengua eta lankidetasuna instituzionalizatzeraino, baina, **oinarri** bezela burruka hauetariko bakoitzaren hegi espezifikuak onartuaz, hots, gure kasuan, Euskal-herriaren burruka, nazional

13 Ikus, ibidem. Documento... 12-en orr

14 Ikus, ibidem, Documento... 12-en orr

15 Ikus, ibidem. Documento... 12-en orr

16 Ikus, ibidem Zutik 62,4-en orr.

17 Ikus, ibidem, Zutik 62,4-en orr.

18 Ikus, ibidem Zutik 62,4-en orr.

19 Ikus, ibidem Zutik 62,4-en orr.

20 Ikus, ibidem Zutik 62,4-en orr.

21 Ikus, ibidem. Zutik 62.5-en orr

22 Ikus, ibidem. Documento... 12-en orr

23 Ikus, ibidem, Documento... 12-en orr.

24 Ikus, ibidem. Documento... 12-en orr.

askatasunarena dala eta ondorioz, demokrazia popularraren moldeekin Euskal Estadu independente bat erdiesteia jokabide dala (25). Eta kontzetu honen agerpenarekin bukatzeko, guzi hau koroitzen duan berauen frase bat aipatuko dugu: "Nazional mugen arazoa erabaki nahia, gaurregun amets zoragarri bat da. Gaurregungo arazoa, inperialismua menperatuko duan internazionalismu sakon bat egitean datza. eta helburu hau ez da inolaz ere euskat nazionalismuarekin oposatzen, aitzitik, honetarako nahi eta nahiezko da. Euskadiko proletargotza internazionalismua aurkitzen doa. 1970-ko Abenduan Euskal nazionalismua eta GAUZA BAT izan dira." (26)

f) Autodeterminaziua:

"Iraultzaren ondoren Euskal-herriak bere etorkizuna hautatuko duala esatea, tranpa bat izanik, teorikoki faltsua da. Zeren, burrukan ari dan Herria, zer besterik egiten ari da, bere etorkizuna hautatzen ezik?" (27) Orduan, argi eta garbi dago, Herria dalarik euskal nazional askatasunersko burruka daramana, burruka horren helburua gaur beretik dala Herriaren autodeterminaziua. Eta guzi hau. Burgosko epaituekin egin dan propáganda gezurtia deuseztatu nahirik aipatzen dala, esaten digute. Zeren, "haiek Euskal-herriaren autodeterminaziua etorkizunerako utziko dutela, predikatu bait da." (28) Aitzitik, "Burgosen prozesatutako E.T.A.-ko militanteek, E.T.A.-ren esistentzia bera ere Euskal-herriaren eguneroko autodeterminaziu horretatik zetorrela ondo zekiten" (29). Honela bada, "euskal abendua" deitu izan daña, kaleetan herriaren autodeterminaziua gertatzen ari bait zen (30).

g) Interesak eta formak: (31)

Interesei buruzko esanaldiak nahiko zabalak dira. Hasteko, interes komunak zeintzuk eta norentzat diran ikusiko dugu.

Honela, interes komunak, "nazionalak" (32) dirala esango zaigu. Eta beraiek, popular klase euskaldun guztiei, gutxienez "Popular Iraultza egin bitartean. komunak zaiela" (33). Halere, Ínteres komun hauen alboan, interes ekonomiku izanik, klase bakoitzarentzat espezifiku danazaz hitzegingo da. Areago joanik, euskal iraultzaren lehen fasean euskal nazional burgesiaren klase interes ekonomikuak zeintzuk diran galdegiten da, eta euskal nazional burgesia, oligarkiaren podere finantzieru eta industrialki monopolista danarengatik txupatuta dagola, ihardetsiko da. Eta euskal proletargotzaren klase interesak zeintzuk dira? Dударik ez, anti-kapitalistak; gainera, kapitalismuaren txetzearekin, eta sozialismuaren edo klase gabeko gizartearen muntaketarekin bakarrik erdietsiko direla. Halere, ordea. hau burrukaren azken helburu da. Orduan, ez da ahaztu behar iraultzaren lehen fasean anti-monopolista mailara mugatzen direla, eta honela, nazional burgesiarekin bere burruka alkaturik eramatea baimentzen zaiola (34). Honek, ez du esan nahi, kapitalista sistimaren kontradiziu funtsezkoena galtzen danik, aurpegi ezberdinak hartzen doala baizik. Zeren, kapitalismuaren monopolista fase honetan, proletargo klasearen interesen eta burgesiaren aurrelari zatiarenen arteko kontradiziu bigarren mailan lekutuz gero, proletargotzaren eta nazional burgesiaren monopolista produkziuaren har-emanak aldatzeko interes komuna lehen mailan jartzen bait da (35).

